

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5146

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 19koa, Kulturako sailburuordearena, 2025eko ekitaldirako publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko irailaren 17ko Aginduaren bidez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta hedatzeko dirulaguntzen oinarriak ezartzen dira, eta 2025eko ekitaldirako deialdia egiten da (aurrerantzean, agindu arautzailea).

2025eko azaroaren 18an, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariak ebazpen-proposamena egin zuen, 2025eko irailaren 17ko Aginduan xedatutako balorazio-irizpideak eta eratutako balorazio-batzordeak egindako aktaren edukia kontuan hartuta, jasotako eskaerak baloratzeko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Eranskinean zerrendatzen diren entitate eskatzaileei zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.— Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorrak ere.

Hirugarrena.— Dirulaguntza ordainduko da, hura arautzen duen aginduaren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena.— Ebazpen hau pertsona eta entitate interesdunei jakinaraztea.

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jakinarazteko eta jende guztiak horren berri izan dezan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 19a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espedientearen kodea	Entitate interesduna	Lortutako puntuazioa guztira	Aurkeztutako aurrekontua	Eman beharreko dirulaguntza guztira
009-APR-2025	Aranzadi Zientzia Elkartea	65 p.	7.300,00 €	4.015,00 €
006-APR-2025	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala	85 p.	27.364,01 €	19.154,80 €
008-APR-2025	Euskal Herriko Txistularien Elkartea	95 p.	14.189,25 €	9.932,47 €
003-APR-2025	Langile Abertzaleen Batzordeak	100 p.	62.140,00 €	20.000, 00 €
007-APR-2025	Fraternidad Mundaquesa	75 p.	5.134,20 €	3.337,23 €
005-APR-2025	Fundación Cultural Privada Indalecio Prieto	70 p.	12.002,00 €	7.201,20 €
010-APR-2025	Fundación Educación Marianista Domingo Lázaro	65 p.	2.975,00 €	1.636,25 €
004-APR-2025	Fundación Torre Olaso	80 p.	10.080,00 €	7.056,00 €
001-APR-2025	Arantzazuko Frantziskotar Probintzia – Digitalizazioa	70 p.	20.157,00 €	12.094,20 €
002-APR-2025	Arantzazuko Frantziskotar Probintzia – Katalogazioa	65 p.	14.353,02 €	7.894,16 €
			Guztira	92.321,31